

## **KOSTUEN EGITURA**

### **- KOSTU FINKOAK:**

Lokal bat alokatzeko beharra dugu bertan batzen dugun plastikoa pilatzen joateko, ondoren, plastikoa erosten duten enpresei kantitate handietan saltzeko. Kostu hau finkoa izango da zeren eta hilero ordaindu beharrekoa berdina izango dugu. \*Kostu hau finkoa izateaz aparte, zeharkako kostua ere izango da, zeren eta, azkenengo produktuan ez dugu ikusiko kostu hau egon dela, enpresa barruko kostua da azkenengo produktua posible izateko.

### **- KOSTU ALDAKORRAK:**

Garraioaren kostua aldatu egingo da zenbat plastiko batzen dugunaren arabera: kamioi bat erabiltzen badugu plastikoa enpresetara banatzeko, kamioiaren alokairuaren prezioa aldatu egingo da bere tamainaren arabera (batzen dugun plastiko kantitatearen arabera). \*Kostu zuzena herritar irabazleentzako premiak izango lirateke azkenengo helburuan ikusgarria izango den gauza bat delako. HASIERAKO INBERTSIOA: Gure hasierako inbertsioa app-a sortzen inbertitu beharko genuke eta kostu hau 700€ eta 3000€ tartean egongo litzateke.